

Gasteizen, Bizente Goikoetxea kaleko ordezkari batzaria lehen aldiz 1982.eko Martxoaren 26an, egin du arratsaldeko laurretan, Euskaltzaindiak bere hileroko batzaria: Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordea, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, F. Ondarra, J. San Martin eta J. M.<sup>a</sup> Satrustegi euskaltzain jaunak; G. Lopez de Gereñu euskaltzain ohorezkoa; J. A. Arana, I. Baztarrika, P. Charritton, P. Etcheandey, P. Goenaga, J. Goikoetxea Maiza, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, J. A. Mujika, P. Martin Latorre, K. Rotaetxe, M. M.<sup>a</sup> Ruiz Urrestarazu, P. Sancristoval eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak; J. M.<sup>a</sup> Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, E. Larre eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Azken batzarreko agiria onartu da.

### Goizeko bilkuren berri

a) *Irakasleagoa*. Datorren Ekainean eta udazken aldera, Nafarroan jaio edo bizi direnentzat Iruñean azterketak egitea erabaki da. Bigarren arazo bat "B" mailako agiriena da. Ez zaio gerorako etorkizun gehiegirik ikusten eta bertan moztea komeni dela esan da. Une honetan horretarako ikastaroak eginik edo egiten dihardutenentzat behin-behineko etsaminak antola ditzan eskatuko zaio Jaurlearitzako Hezkuntza Sailari.

b) *Udako Euskal Unibertsitatea*. Elkargo honetako idazkaritzatik jasotako gutunari erantzunez, erakunde bion arteko bilera bat egitea erabaki da.

c) *Hiztegigintza*. Hondarribiko adierazpenari jarraipena emateko hiztegigintza-ko lanak honela banatu dira. Hiztegi orokorra Mitxelena bizkor egiteko era izan dezan, Gasteizko ordezkari batzaria izango du behar den tokia, hala nola fitxak betetzeko esku-laguntza eta tresnak. Ibon Sarasola hartu du, beste elde, zuzendaritzarako lagun: *Hiztegi hiritartua* lantzen hasteko batzorde ttipi bat izendatu da: E. Knörr, L. Akesolo, Mujika Plazido eta Luis Mari, M. Izeta eta X. Kintana. Hauen lehenengo eginkizuna buru bat izendatu eta idazkari eragile eta trebe bat bilatzea izango da. Hiztegi honen helburuak eta mugak aztertu beharko dituzte gero eta Euskaltzaindiari aurkeztu. Aipaturiko batzorde bien harremanak estuak izan beharko dute, noski, eta Ibon Sarasola izan daiteke batzuen eta besteen lokarri.

d) *Azentua*. Ekainean Bizenta Mogelen mendeurrenako jardunetan azentuaren azterketa egingo denez, zenbait izen aipatu dira lan horretarako, hala nola: J. Basterretxea, Gabriel Lertxundi, Karmele Rotaetxe, Imanol Laspiur, P. Altuna eta Koldo Mitxelena bera. Herri hizkuntzaren eredu hizlari jatorren baten magnetofoi entzundiren bat ematea ere komenigarri ikusten da. Bi egun t'ardi azentuaren jardunei emanez, larunbat arratsaldean egingo da Bizenta Mogel zenaren mendeurren ospakizuna, ahal bada, emakume urgazleek parte hartuz.

### Batzordeen berri

1. *Dialektologia*. Donaixtin Bazko Zaharrez egitekoa den batzarraren antolaketazun lanez mintzatu da J. Haritschelhar. Bertan erabiliko diren Dialektologia gaiak aipatu ditu gero J. A. Letamendiak. Praktikotasunaz kezkatutik, udan egingo den itaunketa dute begien aurrean: tresnen arazo teknikoak, galde-erantzunen egokitasuna, transkribapenak eta abar. Kanpoko irakasle beharrik ez dute ikusten.

2. *Bertsolaritza*. Txapelketa plangintzaren aurkezpena Donostian egin berri dutela adierazi du J. San Martinek, Giro ona sumatzen omen da. Apirilaren hamarrenoko epea eman dute, bertan parte hartu nahi dutenek izena eman dezaten.

3. *Literatura*. Batzorde idazkari izendatu berri den Velez Mendizabal mintzatu da, Gipuzkoako Diputazioarekin izan dituzten harremanen berri emateko. Helburu nagusiak agertu dizkiete. Batzorde honen gastuak eta aldizkaria argitaratzeko behar dena ordaintzeko eskaintza jaso dute agintariengandik. Barne erregela eta araudiak prestatzen hasiak dira.

4. *Gramatika*. Batzordea atzo bildu zela Bilbon, esan du Patxi Goenagak. Bakoitza bere alde lanean ari dela eta nolabaiteko taldelana egiten hasteko, denak lan berari lotzea erabaki dute. Bakoitzak autore bat ikertuz, esate baterako, Miren Azkarate eta Patxi Goenagaren lanak aurkeztu ziren. Iruñeko Kongresoa gogoan dutela badoaz urratsak ematen. Izen sintagmaren azterketa daramate esku artean.

Iparraldeko elkarte guztiak baturik Parisko agintariei egin dieten aurkezpenaz mintzatu da gero J. Haritschelhar. Beren asmoak jakinerazi dituzte behintzat.

### Txostenak

P. Lafitte jaunak *La Vieuxville* eta *bere kateximaren* berri eman du P. Charriton jaunak irakurri dion txostenean.

Patxi Goenagak euskal nominalizazioari buruz oharrak egin ditu bere txosten mamitsuan. Hainbat eta hainbat adibidez hornituz ekarri ditu iritzi guztiak. Egun honetako estutasunak gerta ez balira elkarrizketa luzea sortuko zuen gaiak.

Eguneko gaietatik landa, P. Sancristoval jaunak Gasteizko euskaldun baten lekukotasuna adierazten duen idazki bat agertu du. San Migel parrokiako eliz-zerga batean *bascongado* hitza dator XIII. mendean.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*

*Fr. Luis Villasante*

*Idazkaria*

*Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi*